



AIARALDEA *Jaietan*

JAIETAKO GEHIGARRI BEREZIA



AIARA
San Prudentzio
AMURRIO
San Jose
URDUÑA
Otxomaio



AIARA San Prudentzio

Egitaraua

04.27
Osteguna

19:00 // Pregoia eta txupinazoa

19:30 // Aiara Dantza Taldearen ikuskizuna

22:00 // Kontzertuak: Luhartz erromeria + Dj Ohian Vega

04.28
Ostirala

10:30 // Kalejira

11:00 // Tokiko produktuen azoka

12:00 // Meza nagusia

13:00 // Danborrada

17:00 // Eskupilota jaialdia Luiaondon

22:00 // Puro Relajo

23:06 // Placton + Dj Markelin

04.29
Larunbata

12:00 // Haurrentzako tailerrak

16:30 // XLII Jesus Isasi Memoriala Txirindularitza Saria

17:00 // Haurrentzako tailerrak

18:00 // Bola-jokoa Kexaako bolatokian

18:00 // Haurrentzako dinamizazioa; Dj Xaibor

23:06 // Kontzertuak: Akerbeltz + Dj A&B

04.28
Ostirala

09:00 // Artzain-txakur erakustaldia

12:00 // Meza

11:00 // Bola-jokoa Kexaako bolatokian

13:30 // Batukada Feminista

13:45 // Emakumezkoen herri kirol erakustaldia

14:30 // XXVIII. Nagusien Eguna

17:30 // Gora Bihotzak

19:30 // Dantza plaza Patxi Perez

19:30 // Odoloste jana eta jaien amaiera



Aiarako jaiak 2023
· SAN PRUDENTZIO ·

**AIARAKO JAIETARA HURBILTZEKO,
UTZI AUTOA ETXEAN ETA
ERABILI GAUEKO AUTOBUS ZERBITZUA**

OSTEGUNA 27, OSTIRALA 28 ETA LARUNBATA 29

ETORRERA	Artziniega 20:30	Lanteno 20:40	Menagarai 20:45	Ibaguen 20:55	Arespalditza 21:00
	Laudio 21:20	Luiaondo 21:30	Amurrio 21:40	Murga 21:50	Arespalditza 22:00

ITZULERA	Arespalditza 04:00	Ibaguen 04:10	Menagarai 04:20	Lanteno 04:30	Artziniega 04:40
	Arespalditza 05:00	Murga 05:10	Amurrio 05:20	Luiaondo 05:30	Laudio 05:40

KOPAS

IDEIAK GAUZATZEN DITUGU

Alda. Urkijo, 88 -2º
48013 Bilbao
kopas@kopas.es
Tfno. 94.442.22.24



Aialako Industrialdea, 8
01479 Murga - Aiara
fabrica@kopas.es
Tfno. 945.39.94.05

www.kopas.es



AIARA **San Prudentzio****Puro Relajo, Akerbeltz, Oihan Vega edota Patxi Perez arituko dira Aiaraiko Jaietan apirilaren 27tik 30era**

SAN PRUDENTZIO JAIK OSPATUKO DITUZTE AIARAN APIRILAREN AZKEN ASTEBURUAN ETA HAMAIKA EKINTZA ANTOLATU DITUZTE HORRETARAKO. KONTZERTUAK EZ EZIK, EMAKUMEZKOEN HERRI KIROLAK, DANTZA ERAKUSTALDIK, KIROLA EDOTA GASTRONOMIA HITZORDUAK ERE EGONGO DIRA. IKER LARRAZABAL PILOTARIA IZANGO DA PREGOILARIA.

Testua Aitor Aspuru Saez

Sanprudentzioak ate joka daude Aiaraan eta apirilaren 27tik 30era bitartean ospakizunek Arespalditza hartuko dute.

Iker Larrazabalen pregoiarekin hasiko dira jaiak ostegunean 19:00etan udaletxean bertan eta lau egunez luzatuko dira ekintzak.

Musikaren aldetik, eskaintza zabala izango da eta Fanfarre Beti Jaik, Luhartzek eta DJ Oihan Vegak alaituko dute giroa ostegunean. Puro Relajo, Placton eta

DJ Markelinen txanda helduko da ostira-lean. Larunbatean Akerbeltz taldea eta DJ A&B igoko dira oholtzara eta igandean Patxi Perezek itxiko du kontzertu sorta.

Horrez gain, kirola (pilota, txirrindularitza, bola-jokoa), haurrentzako ekintzak (parkeak, Xaibor, 'Gora Bihotzak' ikuskitzuna, tailerrak) eta aldarrikapen feministak ere egongo dira (Batukada feminista, esaterako). Horri lotuta, eraso matxisten kontrako protokoloa prestatu dute eta jaiak hasi baino lehen azalpen saio bat egingo dute.

IKER LARRAZABALEN PREGOIAREKIN HASIKO DIRA JAIK OSTEGUNEAN

Tokiko erakundeak prestatutako egitarautik at, kontzertua egingo dute apirilaren 29an 16:30ean. Emanaldi zarata-tsua izango da, Incendio aiaraldearrek eta Bakounine eta Kial talde bretoiek joko baitute.

Aiaraiko Udalak autobusak antolatu ditu apirilaren 27an, 28an eta 29rako, Arespalditzara hurbiltzeko. Bi zerbitzu egongo dira: Laudiotik, Luiaiondotik eta Amurriotik igaroko den bat; eta Artziniegatik abiatu eta Lantenotik, Menagaraitik eta Ibaguenetik igaroko dena.



BILBO AP-68 E-804 **GASTEIZ**

Laudio A-625 **Luiaondo** A-625 **Amurrio**

Arespalditza A-3632 **Urduña** A-3618 **Izoria**

Aiara industrialdea

Ondo pasa jaietan!

Aiara-Murga industrialdea, ARESPALDITZA Egin edozein kontsulta: **653 701 400 / 635 706 734** gardenerena@hotmail.com **@garden_arena**

AMURRIO **San Jose Auzoa**

Egitaraua



04.29 *Larunbata*

11:00 // Balkoi eta lehioen dekorazioa

12:00 // Txupinazoa

12:30 // Trikipoteoa

14:00 // **Frontoian**
Babarrun-jan herrikoa

16:00 // **Frontoian**
Dantzaldia Saratxagaren eskutik

16:00 // **San Roke**
Euskadiko trial Txapelketa

16:00 // Dantza erakustaldia; Aiara Dantza Taldea

16:00 // **Frontoian**
Zirkinik bez erromeria

22:00 // **Gaztetxean**
Streetligh + Dardara Soinu Sistema + Desi eta Presi

22:00 // **Frontoia**
Ismeder DJ

04.30 *Igandea*

12:30 // Kalejira Akelarre Txarangarekin

16:30 // Aurrentzako tailerrak

17:30 // Txokolatada
18:30 // Dantza erakustaldia; Kukuska elkarte eta Aresketa Gimnasia erritmiko taldea

19:30 // Flamenko musika; La Piti Por Rumbas + Los Primos

22:00 // **Frontoian**
Hay poco Rock&Roll (Extremoduro, Marea eta Platero y Tú taldeen bertsioak)

22:00 // **Gaztetxean**
Erasoz Erantzun + Belgorri + Zazpizar Erromeria + Dj Aaron xtyx

01:00 // **Frontoian**
Eraso Dj & Dj Munza

05.01 *Igandea*

11:00 // Txirrindularitza txapelketa

12:30 // **Elizan**
Jaunartze meza

13:00 // **Plaza berria**
Bermut emanaldia; musika Cigarette Break taldearekin

San Joseko jaiak probestuz musika eta festa uztartuko dituzte Amurrioko Gaztetxean



Azken urteetan kontzertuak eskaini dituzte Amurrioko Gaztetxean. Aiaraldea.eus

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Aurreko urteetan egin bezala, aurten ere Amurrioko Gazte Asanbladak ez dio hutsik egin San Jose auzoko jaietako egitaraua osatzeari. Asanbladak kontzertuak eta festa antolatu ditu apirilaren 29 eta 30erako. Bi egunetan egitarau oparoa prestatu dute, tokiko sortzaileekin ia osotasunean.

Apirilaren 29an, ostirala, rap eta reggae doinuak izango dira protagonista nagusiak. 22:00etan irekiko dituzte Gaztetxeko ateak eta Streetligh Studioko kide diren Loza, Mrt eta Kortazar raperoak piztuko dute gaueko giroa. Dardara Soinu Sistemako kideek eta

Desi eta Presi musika jartzailerek luzatuko dute dantzaldia.

Biharamunean ere, apirilaren 30ean, ordutegi berdina izango du Gaztetxeko jaialdiak, baina oraingoan punk eta rock doinuek izango dute protagonismoa. Iluntzeko 22:00etan Erasoz Erantzun taldea arituko da oholtza astintzen, eta euren estudioko lan berriko kantak aurkezten. Belgorri talde gazteak hartuko du lekukoa gero, Amurrioko bandaren jendaurreko lehenengo kontzertuan, eta jarraian Zapizar Erromeria igoko da eszenatokira. Gaua goizaldeko ordu txikiak arte luzatzeko ardura, ordea, DJ Anton xtyx musika jartzailearen 'tekno gauak' izango du.



Gure berezitasuna, tokiko haragi freskoak
Ondo pasa jaietan!

Zabaleko, 8 AMURRIO 945 89 00 31

AMURRIO **San Jose Auzoa****Dantza erakustaldiak, erromeriak, motorrak eta txirrindulariak izango dira nagusi San Jose jaietan**

SAN JOSE AUZOKO JAI BATZORDEA BURU BELARRI ARITU DA AZKEN HILABETEETAN AUZOKO JAIK PRESTATZEKO. AURTEN APIRILAREN 29TIK MAIATZAREN 1ERA LUZATUKO DIRA ETA EGITARAU OPAROA PRESTATU DUTE.

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

20 ekintzek osatuko dute San Jose jaietako egitaraua. Apirilaren 29an hasiko dira, 11:00etan balkoi eta leihoen apainketa deialdiarekin. 12:00etan jaurtiko dute txupina, eta jarraian abiatuko dute trikipoteoa. Ohigisa, babarrunjan herrikoia izango dute eguerdian, eta Saratxaga taldearekin dantzaldia egingo dute segidan. Hala, arratsaldean Euskadiko Trial Txapelketa jokatuko da San

Roken, 16:00etan. 18:00etan, berriz, buruhandiak izango dira protagonista, eta 19:00etan Aiara Dantza Taldekoen emanaldiak hartuko du lekukoa. Gaueko eskaintza, berriz, Zirkiñik bez erromeriak eta DJ Esmederrek osatuko dute.

Igandean, apirilaren 30ean, Akelarre txarangak esnatuko ditu kaleak, 12:30ean. Hurrengo ekintza, baina, arratsaldean izango da, 17:30ean gauzatuko baitituzte haurrentzako tailer eta jolasak. 18:30ean, aldiz, Kuskua elkartearen eta Aresketa Gimnasia

Erritmikoaren txanda izango da; eta 19:30ean flamenko musika kontzertua eskainiko dute La piti por rumbas eta Los primos taldeek. Domeka borobiltzeko, Extremoduro, Platero y tu eta Marea taldeen tributua den Hay poco rock&roll taldea oholtzaratuko da.

Astelehenean, txirrindularitza lasterketa klasikoa jokatuko da, 11:00etan abiatuko dena San Jose auzotik. 12:30ean meza egingo dute, eta 13:00etan bermut girotua, Musica con Cigarette Break taldearen eskutik.

**ARETXONDO TABERNA**

Errotonda alboan

20:00etatik aurrera
BOKATA egin berriak

ORDUTEGI JARRAIA,
larunbat eta
igandean zabalik

GOSARIAK
5:30etatik aurrera



945 39 35 95

URDUÑA Otxomaio

Egitaraua



05.05 Ostirala

19:30 // Udaletxea

Otxomaio 2023 kartelen sariak eta opariak ematea

21:00 // Foru Plaza

Txupinazoaren jaurtiketa, eta Bihotza eta buruhandien kalejira Gesaltza Txarangarekin

23:30 // Foru Plaza

Akerbeltz erromeria

03:00 // Foru Plaza

Dj

05.06 Larunbata

11:00 // Foru Plaza

XIV. Patata Tortilla
Lehiaketa eta IX Paella
Lehiaketa

12:30 // Foru Plaza

Antxo eta Pantxa pailazoak

13:00 // Hirian zehar

Kalejira Santa Zezilia Bandaren eskutik

16:30 // Bihotza txosna

Mus Txapelketa

17:00 // Zezen Plaza

Kuadrillen arteko herri kirolak

18:00 // Bolatokia

XXVI. Bolo Txapelketa

18:00 // Gernika Plaza

Euskal dantzen alardea

19:00 // Hirian zehar

Kale-dinamizazioa,
Orkrestea elektrotxaranga

19:00 // Zezen Plaza

Bigantxak askatzea

19:30 // Andra Mari Eliza

Udaberriko kontzertuak:
Urduña, Urioste eta Amorebietako abesbatzak

23:30 // Foru Plaza

Kontzertuak: DUPLA + Dj
The Show Time

04:00 // Bihotza txosna

Dj

05.07 Igandea

11:00 // Bolatokia

XXVI. Bolo Txapelketa

12:00 // Hirian zehar

Txistulari topaketa Getxa
Goi Txistu Taldea

18:00 // Frontoia

Tokiko pilotariak:
Gorostizaga-Ripa vs
Karra-Odei
Emakumezkoen jaialdia, elite kategoria:
Arrizabalaga-Oses vs
Aldai-Gaminde
Gizonezkoen jaialdia,
1. maila:
Retegi Bi-Merino II vs
Arteaga II-Garmendia

18:30 // Gernika Plaza

Swing Dantza

20:00 // Foru Plaza

Kontzertuak: Burbuilak +
Gwaya Reggae + Placton
Plays Tick

20:00 // Foru Plaza

Dj Juanma

05.08 Astelehena

10:30 // Antzinako

Andra Mari Santutegia
Agintarien desfilea

11:00 // Antzinako

Andra Mari Santutegia
Meza nagusia

13:00 // Antzinako

Andra Mari Santutegia
Urduñako Abesbatzak
abestutako meza

13:00 // Hirian zehar

Kale-dinamizazioa;
Getxa Goi Txistu Taldeak

13:00 // Foru Plaza

Santa Zezilia Bandaren kontzertua

21:00 // Foru Plaza

La Resistencia orkestra

05.09 Asteartea

10:30 // Foru Plaza

Puzgarrien jolas parkea

11:30 // Antzinako

Andra Mari Santutegia
Arrastariako agintarien erromesaldia

12:00 // Antzinako

Andra Mari Santutegia
Meza nagusia

12:30 // Hirian zehar

Batibomba eta buruhandiak askatzea

13:00 // Hirian zehar

Kale dinamizazioa;
Oilarrak taldea eta Koldo eta Unai aita-seme trikitalariak

14:30 // Foru Plaza

Haurrentzako herri bazkaria

17:00 // Foru Plaza

Umeentzako dinamizazio jarduera; Dj Xaiboren eskutik

17:00 // Barrakak

Prezio murriztua

APARTAMENTOS TURÍSTICOS
Ciudad de Urduña

6 APARTAMENTU HIRIGUNEAN FORU PLAZAN

Erregistro zenbakia: E BI 687-692

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK

www.apartamentosorduna.com · 621 209 221 · info@apartamentosorduna.com

Restaurante
HIKETI
Urduña

SORMENEZKO, EGUNGO ETA KALITATEZKO SUKALDEA

Esperientzia gastronomiko desberdina

Aurrez erreserbatzea gomendatzen da

Kale Barria, 13 Urduña · 945 38 48 92

Mugalde
HERRIKO TABERNA

BOKATAK
Otxomaiotan ere!
21:00- 23:30

Kale Barria, 20
945 38 42 47
@mugalde_elkartea

Presoak
etxera

URDUÑA **Otxomaio****05.12**
*Ostirala***17:00 // Frontoia**
Saskibaloia partidak**20:00 // Hirian zehar**
Battueren batukada**22:00 // Foru Plaza**
Kuadrillen afaria**23:30 // Foru Plaza**
Zutik erromeria**03:30 // Foru Plaza**
Dj Kul**05.13**
*Larunbata***09:00 // Zezen Plaza**
XXIII. Hipaka
kontznetrazioa**10:00 // Gamako lakua**
XXII. Arrantza Lehiaketa**13:30 // Hirian zehar**
Kaleko dinamizazioa:
'Taberna Ibiltaria'**15:00 // Gernika Plaza**
Herri bazkaria**18:30 // Gernika Plaza**
Aurreku eta Fandango
Lehiaketa**13:30 // Hirian zehar**
'Taberna Ibiltaria'**23:30 // Foru Plaza**
Kontzertuak: ESNE
BELTZA + Dj Varro**05.12**
*Ostirala***08:00 // Foru Plaza**
II. Putxera Lehiaketa**10:00 // Foru Plaza**
Haurrentzako mendi
irteera**11:30 // Mikel Deuna**
Saratzoko auzokideei
harrera**12:00 // Antzinako**
Andra Mari Santutegia
Meza nagusia**12:00 // Zezen Plaza**
Zaldiz ibiltzeko aukera**12:30 // Hirian zehar**
Kalejira: Bihotza,
erraldoiak eta
buruhandiak**13:00 // Hirian zehar**
Santa Zezilia bandaren
kalejira**17:30 // Frontoia**
Esku pilota partidak**17:30 // Foru Plaza**
Mozorro Lehiaketa**20:00 // Foru Plaza**
'Festamentua', Tio
Teronen semeak**21:00 // Foru Plaza**
Bihotzaren erreketak


BAR POLITEJA
GOZATU OTXOMAIO
MENU BEREZIAZ
Gora Otxomaio!

Gran Via 5,
URDUÑA
635 70 23 09



BATZOKI!

Gora Otxomaio!

**URDUÑAKO
BATZOKIA**
Burgos kalea, 20
48460 URDUÑA (Bizkaia)
Tel.: 946 09 56 49



Txupinazoen zuzenekoak
Bideoak
Argazki galeriak
Agenda
...

**AIARALDEA
Jaietan**
JARRAIPEN BEREZIA

INFO+:     www.aiaraldea.eus

AIARALDEA



URDUÑA **Otxomaio**

“Jende gaztea frontoira erakarri nahi dugu”

URDUÑAKO PILOTA ELKARTEAK HAINBAT BERRITASUN TXERTATU DITU OTXOMAIOTAKO PILOTA PARTIDETAN. HERRITARRAK ETA GAZTEAK FRONTOIRA ERAKARTZEA DUTE HELBURU, ETA AURKEZTUTAKO JAIALDIAK IKUSMIRA SORTU DU HIRIAN. TOKIKO PILOTARIEN ERAKUSTALDIAK SORTU DU ZERESAN HANDIENA.

Testua eta argazkia
Aimar Gutierrez Bidarte

Urtero bezala hitzordu bikoi-tza jarri du Urduñako Jai-Alai Pilota Elkartek Otxomaio jai egitarauaren barruan, baina berritasun ugari ekarri dituzte aurtent esku artean. Maiatzaren 7ko jaialdiak sortu du ikusmira handiena, eta frontoia betetzea espero dute antolatzaileek.

Berritasun ugari

Beste urte batzuetan baino aurrekontu txikiagoa tarteko, Pilota Elkartek eta Urduñako Udalak beste aukera batzuk aztertzeari ekin zioten, gizonezkoen profesional mailako partiden orde. Gauzak horrela, buelta bat eman diote lehenengo asteburuko jaialdiko kartelari eta oso pozik agertu dira emaitzarekin.

Lehenik eta behin, pilota jaialdia egunez aldatzea erabaki dute. Aurreko urteetan txupinazo egunean ospatu izan dute, baina jendea frontoira erakartzeko unerik egokiena ez zela onartuta, aurtengoan igandean ospatuko dute, maiatzaren 7an.

Sarreraren prezioa ere merketu egingo dute. “Sarrera sinbolikoa jarriko dugu; bazkideentzako hiru euroan eta ez bazkideentzako bostean. Herriari eta gazteei zuzendutako ekitaldi bat izatea nahi dugu”, adierazi du Karrak, Jai-Alai Pilota Elkartearen kideak.

Maila-altuko partidak

Hiru partida jokatu dituzte maiatzaren 7ko jaialdian. Elite mailako emakumezkoen partidak jarriko dio goi-mailako puntua igande arratsaldeari. Bertan Arrizabalaga-Oses bikoteak Aldai-Gaminde bikotea izango du aurrez aurre. Bigarren partida Garfe enpresaren eskutik anto-

latu dute, eta gaur egun bigarren planoan dauden goi-mailako gizonezko pilotariak jarriko ditu frontoian: Retegi Bi-Merino II Arteaga II-Garmendiaren aurka.

Baina ikusmira handiena sortu duen partida tokiko pilotariaren erakustaldia izan da. “Koroatze jaietan antzeko zerbait antolatu genuen eta egundoko arrakasta izan zuen”, azaldu du Karrak. Hain zuzen ere, partidak aurrez aurre jarriko ditu Gorostizaga-Ripa eta Karra-Odei bikotea. Lau pilotarietatik bakarra ari da gaur egun pilota biziarekin lehia-tzen, baina, Aiaraldea Komunikabideari adierazi diotenez, partida “intentsoa eta luzea” aurrekusten dute. Giroa “bero” dagoe-la aitortu du Karrak. Ikusmira horri eutsi eta giro-apartaz gozatu nahi dute: “Gure helburua jende gaztea afrontoira erakartzeko da”.

Jaialdia borobiltzeko tokiko-produktuekin osatutako saski baten zozketa ere egingo dute.

Haurren txanda

Otxomaioetako bigarren asteburuan Urduñako Pilota Eskolako ikasleak izango dira pilotalekuko protagonistak. Maiatzaren 14an partidak jokatu dituzte, eta horrekin emango diote amaiera denboraldiari. Pilota Elkartetik partida hauetaz ere gozatzeko gonbitea egin diete herritarrei.

Afizioa indartsu

Pilotazaletasuna indartsu ikusten dute Urduñako Pilota Elkartearen kideek: “Azken urteetan espazioa berreskuratzen ari da”, goraipatu dute. Pilota-eskola hauspotzen jarraitzeko asmoari heldu diote, baina ekin-tza berriak ere badituzte buruan; hala nola, pilota goxuen txapelketa bat.

URDUÑA **Otxomaio****“Betikoa bezain ezberdina den Esne Beltza bat ikusiko dugu eszenatokian”**

ESNE BELTZA TALDEAK KONTZERTUA ESKAINIKO DU MARTXOAREN 13AN URDUÑAKO FORU PLAZAN. ESTUDIOKO ZORTZIGARREN LANA GRABATZEN ARI DA XABI SOLANOREN TALDEA, ETA PROIEKTU BERRITU BAT AURKEZTUKO DUTE ESZENATOKI GAINEAN, ABESTI ZAHAR ETA BERRIAK KANTATZEKO ETA DANTZATZEKO PREST. BESTEAK BESTE ABESLARI BERRIA DU TALDEAK ORAIN: LOVA LOIS.

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Urduñako Otxomaio jaietan arituko zarete datorren maiatzaren 13an. Gogotsu zaudete? Zer eskainiko duzue kontzertuan?

Oso gogotsu gaude Urduñako Otxomaioetan aritzeko. Abeslari berria daukagu eta zuzeneko oso potente dator. Orain arte bezala, sorpresa ugari ditugu prest Urduñako zuzeneko ere. Gonbidatu asko elkartuko ditugu eszenatokian; musikariak eta baita dantzariak ere.

Zortzigarren diskoaren grabaketan zaudete murgilduta. Lan berriko zerbait aurreratuko duzue Urduñako kontzertuan?

Prestatzen ari garen zenbait abesti berri joko ditugu noski, baita abesti zaharrak ere. Azken hauen kasuan moldatu egin ditugu, gure azken laneko estiloarekin bat egin dezaten. Lova Loisen ekarpenak ere eraldaketa ekarri du Esne Beltzaren abesti ezagunengan ere. Irrikaz gaude hauek guztiak taularatzeko.

Disko berriaren grabaketa ez da nolanahikoa izaten ari; kolaborazio andana,

Rafa Sardina ekoizlearen lana... Nolako emaitza aurreikusten duzue?

Orain arte grabatutako diskorik zailena ari da izaten, eta prozesua luzea izango da. Alde batetik, zuk esan bezala, Rafa Sardina produktore ospetsuarekin ari gara azken lana grabatzen; bera Los Angelesen dago eta gu hemen, horrek korapilatu egiten du guztia (barreak).

Gainera, proiektua bidaia bat bezala irudikatu dugu, herrialde desberdinetako musika estilo berriak sartuko ditugu bertan, eta, horrekin batera, kolaborazio asko eta asko ari gara grabatzen. Musika estilo desberdinak Euskal Herriko musikarekin fusionatu nahi ditugu. Beti ere nondik gatozen ahaztu gabe, eta euskara eta gure sustraiak erdigunean jarritz.

Martxoa eta apirilean kontzertu bira egin duzue. Nabaritu duzue publikoaren berotasuna?

Bai, erabat! Jendea oso gogotsu dabil. Hilabete batzuk generamatzen jo gabe, eta guk ere asko eskertu dugu itzulera. Zeid Festen izan ginen, eta orain Viña Rockera goaz, kontzertu bereziak izango dira zalantza gabe. Maiatzean, Urduñan ez ezik, Matienan edota Lazkaon ere izango gara.

“Zenbait abesti berri joko ditugu, noski, baita abesti zaharrak ere, baina berritasunekin”

Lehen aipatu bezala, kide berriak ere batu dituzue Esne Beltzaren proiektura, tartean Lova Lois. Zer berritasun eskaintzen dio Esne Beltzari?

Esne Beltzak hasieratik nahastu du rapa eta musika elektronikoa euskal musikarekin, eta horrekin aurrera jarraitzeko Lova Lois zen pertsonarik egokiena. Genero aldetik er eikuspegi berri bat eman digu, eta gogoia sartu digu guztioi. Sukalde lan handia egin dugu taldea indartzen, eta uste dut emaitza oso ona dela.

Zeintzuk dira Esne Beltzaren arrakastaren osagai nagusiak?

Urte asko dira plazaz plaza, baina uneoro ari gara gauza berriak ikertzen eta estiloak nahasten.

Ez dugu sekula ahazten nondik gatozen, eta uste dut sustrai horiek direla proiektuaren arrakastaren funtsetako bat.

Zer esango zenioke Otxomaioetako kontzertuarekin zalantzan dagoen norbaiti?

Zalantzarik ez izateko. Asko gozatuko dugu Urduñan. Betikoa bezain ezberdina den Esne Beltza bat ikusiko dugu eszenatokian!

URDUÑA Otxomaio



“Urduñak eta euskarak merezi zuten guk abiatutako bidea”

JAVIER ORTEGA ETA ESTHER RUIZ URDUÑAKO ESKOLA PUBLIKOKO LEHENENGO GURASO ELKARTEKO KIDEAK DIRA. 1990EKO HAMARKADAN IKASTETXEA ABIAN JARTZEKO LANARI AITORTZA EGIN NAHIAN, BERAENA DA OTXOMAIOTAKO PREGOIA IRAKURTZEAREN ARDURA. ELKARTEAREN IRAGANAZ, ORAINAZ ETA ETORKIZUNAZ MINTZATU DIRA **ETXOSI BORDES**, **NEKANE GARCIA** ETA **IRATXE MURIAS** EGUNGO KIDEEKIN BATERA.

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Urduñako Eskola Publikoko lehenengo guraso elkarteak hautatu dute Otxomaioetako pregoilari izateko.

Etxosi Bordes: Mezu elektronikoa jaso genuenean, ezin sinisturik geunden: nolatan guri? Gerora ikusi genuen lehenengo guraso elkarteari egiten ziola erreferentzia, eta orduan hobeto ulertu genuen izendapenaren zergaitia. Oso aitortza polita izan da, harrotasunen jaso dugu gonbitea. Urduñako

Eskola Publikoko lehenengo guraso elkarteak hamaika ekimen egin zituen bere garaian, eta horrek errekonozimendua behar zuen. Oso polita da hainbeste borrokatu zuten guraso horiek omentzea.

Gaur egungo Guraso Elkarteak kideak nolabaiteko ikerketa lana egin zenuten, lehenengo elkarteak identifikatzeko.

E.B.: Oso azkar egin behar izan genuen bilaketa. Eskolarekin jarri ginen harremanetan, baina datu gutxi zeuden garaiko guraso

elkartearen inguruan. Aktetan ez zen ezer zehatzik jasotzen, hainbat izen atera genituen baina Eskola Kontseiluko kide ohiak ziren, ez Guraso Elkarteak.

Nekane Garcia: Lehenengo promozioetako orlak begiratzen hasi ginen orduan. Gazte horietako asko eskolako guraso dira orain. Galdetzen eta hariak lotzen Javirenganaino iritsi ginen, bera izan zen guraso elkartearen lehenengo lehendakaria.

Zure izena identifikatu ostean, nola jaso zenuen zuk pregoiaren albistea?

Javier Ortega: Ni asko harritu ninduen. Ez nuen ezagutzen pregoilari aukeratzeko jarraitzen den prozedura. Antza, bozketak bat antolatzen da Udalaren bidez. Nik ez nekien ez bozketak existitzen zenik, ezta emaitza zein izan zen ere ez. Sorpresa atsegina izan zen.

Zuretzat ere sorpresa izango zen.

Esther Ruiz: Nirea sorpresa erdia izan zen. Izan ere, nik parte hartu nuen bozketan, baina nik gaur egungo Guraso Elkartearen alde egin nuen (barreak).



Nola gogoratzen dituzue Guraso Elkartearen hastapen horiek?

J.O.: Ilusio handiarekin ekin genion bigarri. Elkarlan handia zegoen familien, maisuen eta langileen artean. Aduanako eraikinean abiatu genuen eskola 1989-1990 ikasturtean, eta 1995era arte egon zen bertan.

Guraso Elkarte sortuzenean 'Gurasoak' izena jarri genion. Hasierako urteetan lan asko geneukan, baina eskola sortu aurretik ere lan asko egin behar izan genuen. Eskola sortu genuenetik behin betiko erai-

kina izan arte, asko borrokatu behar izan ginen. D ereduaren alde ere asko mugitu behar izan ginen, hori zen gure helburu nagusia, euskara hutsezko eskaintza bat sortzea hirian.

Otxomaioetan parte hartze aktiboan izan du beti Guraso Elkarteak.

J.O.: Lehenengo urte horietan ekin genion Otxomaioetan txosna jartzeari. Txupinazo eguneko lehenengo txosna txanda eskolako irakasleek egiten zuten, eta oker ez banago, oraindik ere egiten jarraitzen

dute. Lehenengo txosna Aduana barruan jarri genuen. Bertatik bildutako dirua eskolako gastuak eta ikasleen ekintzak ordaintzera bideratzen genuen. Ekintza asko eskaintzen ziren eskolan: psikomotrizitatea, barnetegiak...

E.R.: Boleibol taldea osatzeko, adibidez. Urduñako Eskolako Taldea Arabako txapel-dun izatera iritsi zen 1990eko hamarkadan. Bi helburu genituen txosna jartzen hasi ginen; herrian erreferentzia lortzea eta ikastetxearentzako dirua biltzea. Gainera uste dut lortu genuela ere txosnaren izaer-

rari ere buelta bat ematea; giro familiarra eta atsegina sortzen da eskolako txosnan.

E.B.: Gaur egun Otxomaioetako txosna manentzen dugu. Horrez gain, umeen bazkaria ere antolatzen dugu maiatzaren 9an; gainera, azken bi urteetan lortu dugu Txefo-setako guraso elkarteak ere aktiboki parte hartzea bazkariaren antolaketan.

Eta otxomaioetatik haratago, zer ekarpen egiten du Guraso Elkarteak Urduñako hirian?

E.B.: Guraso Elkarteak hiriko dozenaka ekintzetan hartzen du parte: txokolatadak, Olentzero eta Maridomingiren kalejirak...

Iratxe Murias: Guraso Elkarteak lehenengo elkartearen bide berdinetik egiten du aurrera. Bere helburua argia da; ikasle guztiei ikastetxeko ekintza guztietan parte hartzeko aukera ematea, inolako bereizketarik gabe. Gainera, zorionez, jarduera asko dituen eskola da gurea. Hori dela eta, funtsezkoa da Guraso Elkartearen papera.

N.G.: Guraso Elkartearen parte hartzea boluntarioa da, baina Urduñako Eskola Publikoan ia guraso guztiak dira bertako kideak, elkarteak ikastetxeari eta hiriari eragiten dion onura oso agerikoa delako.

E.R.: Erreferentziarena ere oso faktore garrantzitsua izan da beti Guraso Elkartearen. Urduñako Eskola Publikoa zerbait ezezaguna zen herrian, aurretik ezer ez zegoen tokian ari ginen proiektu bat erakitzen. Gu izan ginen lehenengoak Agate Deuna, Inauteriak edota Korrika bezalako ekimenak hiriko kaleetara ateratzen.

Pentsatu duzue pregoian zer esango duzuen?

J.O.: Oraindik ez, baina zerbait laburra izango da. Txupinazoaren zain daudenak ez daude egundoko hitzartze bat jasotzeko prest (barreak).

N.G.: Eskola Publikoaren aldeko mezua izango da. Gure seme-alabek gaur egun jaso dezaketen heskuntza eredu jasotzeko gure aurrekoek egindako lana goraituko dugu.

E.R.: Ritxar atezainari ere aipamen txiki bat egin beharko diogu. Eskolaren lehenengo urteetan egundoko ekarpena egin zuen.

Eta nolako etorkizuna aurreikusten duzue?

E.B.: Etorkizun oparoa sumatzen diot nik. Urtez urte haziz doa Eskola Publikoaren proiektua. Guraso Elkartearen ere indartsu dago: guk orain utziko dugu elkarteko gidaritza, baina honezkero badugu erreleboa. Familia baten modukoa da eskola, beti dago norbait laguntzeko prest.

N.G.: Seme-alabei parte-hartzeko eredu oso polita ematen ari garela uste dut ere. Proiektu oso interesgarrietan hartu dugu parte; hala nola, patioaren birnaturalizazioan. Ikasleek ikusten dute nola ari diren euren gurasoak lanean eta borrokan, eta hori oso polita da.

E.R.: Urduñak eta euskarak merezi zuten guk abiatutako bidea, eta etorkizunak ere merezi du.

I.M.: Guk aurrekoen lekukoa hartu dugu, eta aurrera egiteko indarra eta ilusioa soberan ditugu.

ARABAKO JAIAK

SAN PRUDENTZIO ETA ESTIBALIZKO ANDRE MARIA



APIRILAK 28
MAIATZAK 1

2023